

HOI

**ESKULIBURUA-EGI:**

# Alfabetatze eleaniztun inklusiboaren garapena Haur Hezkuntzan eta Arreta Goiztiarrean

DIA DUIT



CZEŚĆ!

KAIXO

MERHABA



3 urteko Erasmus+ KA2 Lankidetza Itunak  
Eskola Hezkuntzan 2023-2026 proiektua

**Read with MEE**  
early multilingual literacy



# Read with MEE

early multilingual literacy



ectoraat  
Meertaligheid  
en Geletterdheid



Trinity College Dublin  
Coláiste na Tríonóide, Baile Átha Cliath  
The University of Dublin



HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA



Read with MEE proiektua



Co-funded by  
the European Union

Read with MEE proiektuari buruzko informazioa: [www.readwithmee.eu](http://www.readwithmee.eu)

Argitalpen honi buruzko informazioa: [www.readwithmee.eu/handbook-inc](http://www.readwithmee.eu/handbook-inc)

© Read with MEE 2026

Lan honen bertsio digitala [www.readwithmee.eu/handbook-inc](http://www.readwithmee.eu/handbook-inc) helbidean argitaratu da, Creative Commons Open Acces lizentziaren CC-BY-NC-SA 4.0. Lizentziak helburu ez-komertzialetarako edozein euskarritan berrerabiltzeko, banatzeko eta erreproduzitzeko aukera ematen du, betiere jatorrizko lanari aitortza egokia eginez, egindako aldaketak adieraziz eta lan berria lizentzia-baldintza beraren pean argitaratuz.

Lizentziaren berri izateko, bisitatu [www.creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/](http://www.creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/)

Argitalpen hau honela aipatu behar da:

Nap, Laura, Doaa Abdul Hussain, Kathleen McTiernan, and Lorna Carson. (2026).

Handbook-INC: Inclusive multiliteracy development in early childhood education and care.

[www.readwithmee.eu/handbook-inc](http://www.readwithmee.eu/handbook-inc)

Bigarren edizioa 2026ko urtarrilean

ISBN 978-90-836750-0-8

Hizkuntza-egokitzapena eta zuzenketa: Laura Sainz eta Eider Saragueta

Read with MEE proiektuak ez du erantzukizunik argitalpen honetako kanpoko esteken edo bestelako Interneteko webguneen iraunkortasunean edo zehaztasunean. Halaber, ez du webgune horietako edukien zehaztasunean edo egokitasunean erantzukizunik, edo hala izaten jarraituko duenik.

Europar Batasunak kofinantzatua. Hala ere, adierazitako ikuspegi eta iritziak egileenak soilik dira, eta ez dute zertan Europako Batasunak edo Herbehereetako Erasmus+ Agentzia Nazionalak dituzten ikuspegi zein iritziekin bat egin. Ez Europar Batasuna ezta agintariak ere ezin daitezke haien erantzule izan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu eskuliburu honen garapenean zehar beren ezagutza, hausnarketak zein iritziak eskuzabaltasunez partekatu dituzten guztiei, besteak beste, Jim Cummins, Joana Duarte, Jasone Cenoz, Durk Gorter, Myrte Gosen, Christine Hélot, Diana Lindsay, Michel Vandenbroeck eta Roel van Steensel adituei.

# Sarrera

Ikerketek diotenez, etxean eskola-hizkuntza ez den beste hizkuntza bat (edo batzuk) erabiltzen duten haurrek denbora gehiago behar izaten dute eskola-hizkuntza ikasteko eta ikaskideen pareko alfabetatze-gaitasunak eskuratzeko. Zentzu horretan, era berean, laguntza gehigarria behar izaten dute.

Sarritan, zaila izaten da haur eleaniztunen hizkuntza-garapenari buruzko ikerketa-emaizak eta informazio praktikoa eskuratzeko, hala nola ahoz gorako irakurketa lantzeko jarduerak edo estrategia eraginkorrak. Eskuliburu honek ikerketa-emaizak nagusiak hizkera ulergarrian aurkezten ditu, ikuspegi eta ideia berritzaileak biltzen ditu, eta ikasgelan zein etxean esku hartzeko proposamenak eskaintzen ditu. Eskuliburu hau 2 eta 6 urte bitarteko haur eleaniztunekin lan egiten duten helduei zuzenduta dago, bereziki lehen haurtzaroko eta eskolaurreko irakasle eta hezkuntza-langileei. Era berean, haur eleaniztun txikien guraso eta zaintzaileentzat ere bada.



**Irakurmenaren eta idazmenaren garapen goiztiarra funtsezko adierazlea da haurren etorkizuneko arrakasta akademikoa aurrerikusteko. Hori dela eta, haurrei ozen irakurtzea praktika eraginkorra da alfabetatze-gaitasunak garatzeko.**

## ESKULIBURUAK HIRU GAI NAGUSI HAUEK DITU HIZPIDE:



Eskuliburuak ikerketa-emaizak garrantzitsuak azaltzen ditu, eta erabilgarriak diren proposamen praktikoa eskaintzen ditu. Gainera, informazio gehigarria non topatu adierazten du.

**Liburuaren amaieran, kontrol-zerrenda bat dago; kontrol-zerrenda baliagarria da haur eleaniztunentzako liburuaren kalitatea bermatzeko. Horrez gain, irakurketa liburuaren kalitateari buruzko gako-ideiak daude.**



# Funtsezko kontzeptuen hiztegia

KONTZEPTUA	ERABILERA ESKULIBURU HONETAN
<b>Haur-eskolak eta haurtzaindegiak</b>	Derrigorrezko eskolatzearen aurreko hezkuntza.
<b>Haurrak/ Ikasleak</b>	2 eta 6 urte bitarteko haurrak.
<b>Irakasleak/ profesionalak</b>	Haur Hezkuntzan, haur-eskolan zein zaintza eremuetan lan egiten duten langileak.
<b>Pertsona eleaniztuna</b>	Egunerokotasunean, hizkuntza batean baino gehiagotan komunika daitezkeen haur eta helduak.
<b>Etxeko hizkuntza</b>	Haurrek haztean hitz egiten duten hizkuntza, gurasoek edo zaintzaileek erabiltzen dutena. Argitasun kontuengatik, eskuliburu honetan, eskola-hizkuntzatik bereizi dugu, nahiz eta haur batzuentzat eskola-hizkuntza eta etxeko hizkuntza bera izan.
<b>Eskualdeko hizkuntza edo hizkuntza gutxitua</b>	Herrialde jakin batean, eskualde jakin batean eta/edo gutxiengo talde batek denbora luzean erabili ohi (izan) duen hizkuntza.
<b>Migratzaileak</b>  <b>Migratzaileen Hizkuntzak</b>	Jatorri migratzailea duten haurrak edo helduak; hau da, gaur egun bizi diren herrialdean jaio ez ziren helduak edota haurrak. Jatorri migratzailea duten helduen eta haurren hizkuntzak.
<b>Alfabetatzea</b>	Irakurtzeko eta idazteko gaitasuna (adibidez, hitzak irakurtzeko, marrazteko eta zirriborroak egiteko gaitasuna), eta, oro har, haurrek edozein testu idatzirekin duten elkarreragina.



# Eleaniztasuna ikaskuntza goiztiarrean

Eskuliburu honetan, haur eleaniztunek hizkuntzak nola erabiltzen eta ikasten dituzten azalduko dugu. Gainera, ikaskuntza goiztiarreko inguruneetan, hizkuntza anitz horiek ezagutzeko eta aktiboki erabiltzeko gakoak emango ditugu.

Era berean, haurren etxeko bizitzaren eta eskola edo zaintza ingurunearen arteko loturen garrantziaz ere hitz egingo dugu.

## Eleaniztasuna eguneroko bizitzan modu eraginkorrean komunikatzeko hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gaitasuna da.

Eleaniztasuna hizkuntzak **erabiltzean** datza, ez bakarrik hizkuntzak **jakitean**.

Eleaniztun izateko, haur batek ez du hizkuntza bat guztiz menperatu behar, zuzentasun osoz, alegia; komunikatzeko gaitasuna da kontuan hartu beharrekoa.

## Ikuspegi negatibotik harago

Sarriegi, haur eleaniztunen eskola jarduna ikuspegi negatibo batetik baloratzen du jendeak. Eskolan erabiltzen den hizkuntza ikasteko oztopo gisa ikusten dute haurren jatorri eleaniztuna. Are gehiago, maiz, etxean beste hizkuntza bat hitz egiten duten haurrek eskola-hizkuntza hitz egiten dutenek baino puntuazio baxuagoak lortzen dituztenean, jendeak etxeko giroa jotzen du erruduntzat. Esate baterako, familiak etxean dituen liburu kopuruari erreparatzen dio edo gurasoek eskola-hizkuntzan duten gaitasun mailari.

Ikuspegi negatibo horri ikuspegi defizitarioa deritza, eta, ikuspegi honen arabera, arazoaren jatorria familia eleaniztunengan dago. Ikuspegi horrek estereotipo kaltegarriak indartzen ditu, adibidez, familia eleaniztunek kultura gutxiago dutelako aurreiritzia zabaldu, edo kultura-jardueretara eta -ekoizpenetara sarbide mugatuagoa dutelako ustea indartu. Estereotipo horiek eragin zuzena izan dezakete irakasleengan; izan ere, irakasleek haur eleaniztunekiko espektatiba baxuagoak izatea eragin lezake, baita haur horiekin beste modu batera aritzea ere.

## Eleaniztasunaren onurak

Ikerketek eleaniztasunari buruzko ikuspegi negatibo hori gezurtatu dute.

Berez, eleaniztasunak zenbait abantaila ditu: hizkuntzek nola funtzionatzen duten ulertzen (kontzientzia metalinguistikoa) laguntzen du, eta pentsatzeko eta arazoak konpontzeko gaitasunak (funtzionamendu kognitiboa) ahalbidetzen ditu.



**Jim Cummins irakasleak *common underlying proficiency* teoria proposatu zuen. Haren arabera, haur batek hizkuntza batean eskuratutako ezagutzek eta trebetasunek beste hizkuntza bat ikasteko eta garatzeko oinarri sendoa eskaintzen dute, ikasitakoa hizkuntza batetik bestera transferitu daitekeelako.**

# Haurren hizkuntza-garapena

Haurren hizkuntza-garapena, eleaniztunen hizkuntza-garapena barne, lau fase nagusitan gertatzen da. Haur bakoitzak bere erritmoan aurrera egiten duen arren, fase hauek prozesuaren egitura argia eskaintzen digute. Garrantzitsua da jakitea haurraren inguruneak (adibidez, gurasoen parte-hartzea, adibidez) garapenean garrantzi handia duela.

## Hizkuntza-garapenaren lau faseak:



### 1. fasea

#### Fase hau jaio aurretik hasten da!

Seguruenik, ezaguna egingo zaizu fetuak amaren sabeletik ahotsak entzun ditzakeela. Antza, soinu desberdinak ere ezagut ditzake. Ikertzaileek frogatu dute sabelean dauden bitartean hizkuntza gehiago entzuten dituzten haurrek, jaio ondoren, hizkuntza horiek ezagutzeko gaitasuna izan dezaketela. Horrez gain, jaio eta ondorengo lehen hiletan, haurrak soinuak imitatzen hasten dira. Horri zezeltzea deritzo.

#### Lehen urtearen amaiera aldera, haurra lehen hitzak esaten hasten da.

Hizkuntza bat baino gehiago ikasten ari den haur batek, maiz, hizkuntza desberdinetako hitzak nahasten ditu fase honetan. Baliteke haren ahoskera perfektua ez izatea, ahoko eta mingaineko giharrak nola erabili praktikatzen ari baita. Hitz solteak ekoizten hasi ondoren, esaldi laburrak osatzen hasten da, eta hauek pixkanaka konplexuagoak bihurtzen dira.

### 2. fasea

### 3. fasea

#### Fase honetan, haurrek askoz hobeto bereizten dituzte hainbat hitz eta esaldi.

Komunikaziorako hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzen hasten dira, esate baterako, pentsatzen eta sentitzen dutena adierazten dute iritzia emanez, galderak eginez eta informazioa partekatuz. Era berean, oinarritzko gramatika ikasten hasten dira, hala nola pluralean dauden hitzak erabiltzen, hitzetan atzizkiak gehitzen eta aditz-formak aldatzen hasten dira.

#### Azken etapa honetan, haurren hiztegia oso azkar handitzen da.

Perpau-egituraren ulermena garatzen dute, ideien arteko loturak ezartzeko gaitasuna erakusten dute, eta narrazio osoak ekoizteko gai dira. Halaber, besteen emozioak ulertzeko gaitasuna garatzen hasten dira, enpatia erakutsiz.

### 4. fasea



Read with MEE  
luathlítearthacht ilteangach

# Haurren eleaniztasunaren garapena: bide nagusiak

Haurrek bi modu nagusitan gara dezakete eleaniztasuna, hizkuntza bakoitzaren ikaskuntza noiz hasten duten kontuan hartuta.



## Hainbat hizkuntza aldi berean eskuratzea

Haur batzuk jaiotzetik bertatik hainbat hizkuntzarekin harremanetan daude, eta hizkuntza horiekin batera hazten dira.

Kasu honetan, hizkuntza bakoitzeko garapen-faseak aldi berean garatzen dira.

Haur hauen hizkuntza-sistemak bereizita garatzen dira, baina elkarren ondoan eta lotura estuan. Izan ere, hizkuntzen oinarrian badago ezagutza eta gaitasun komun bat: kontzeptuak eta irudi mentalak barne hartzen ditu, hizkuntza jakin bati lotuta ez dagoena. Horren ondorioz, haur hauek, oro har, gai izaten dira hizkuntza bakoitzaren arauak zuzen erabiltzeko, eta txikitatik bereganatzen dute zein hizkuntza erabili egoera edo solaskide bakoitzaren arabera.

1



## Hizkuntza bat bestearen ostean eskuratzea

Beste haur batzuek, aldiz, lehen hizkuntza jaiotzetik ikasten dute, eta, ondoren, hasten dira bigarren hizkuntza eskuratzen.

Kasu hauetan, lehen hizkuntza neurri handi batean finkatuta dagoenez, bigarren hizkuntzaren ikaskuntza lehenengotik abiatzen da.

Horregatik, ezinbestekoa da lehen hizkuntzaren garapenak aurrera egiten jarraitzea; izan ere, eragin erabakigarria du bigarren hizkuntza zein neurritan eta zer arrakastarekin eskuratuko den. Aurretik eraikitako oinarri horri esker, bigarren hizkuntzaren garapena ez da beti lehenengoaren berdina izaten: askotan, hasierako garapen-etapa batzuk azkarrago igarotzen dira edo, zenbait kasutan, zuzenean gainditu egiten dira.

2

# Hizkuntzen ikaskuntzan eragiten duten faktoreak

Hainbat faktorek eragin dezakete haur eleaniztunen hizkuntzen ikaskuntzan:

## Hizkuntzen arteko aldeak

Zenbat eta handiagoa izan hizkuntzen arteko distantzia tipologikoa, orduan eta konplexuagoa izan ohi da ikaskuntza-prozesua.

## Jarrerak

Haurraren hizkuntzekiko gizarte-jarrerak eta hizkuntza horiek hizkuntza-hierarkian duten posizioak (hizkuntza bat beste baten gainetik baloratua denean) eragin esanguratsua dute ikaskuntza-prozesuan.

## Liburuetarako sarbidea eta etxeko alfabetatze-praktikak

Haurrek liburuetara eta alfabetatze-jardueretara duten sarbidea ez da homogenea, eta ezberdintasun horrek eragin nabarmena du ikaskuntza-prozesuan. Horregatik, haurrei etxean irakurtzeak alfabetatzea eta ahozko hizkuntza garatzea sustatzen ditu, ikaskuntza-prozesuak eta emaitza akademikoak hobetuz.

Faktore horietako asko egiturazkoak dira, eta, ondorioz, irakasleen edo profesionalen jardun-eremutik kanpo daude; hala ere, ikaskuntza goiztiarreko testuinguruetan diharduten helduek eragin dezaketen alderdi esanguratsu ugari daude, eta horiek jarraian deskribatuko ditugu.



**Ba al zenekien?**

Hizkuntza zelten familia sei hizkuntza hauek osatzen dute: galesa, irlandera, gaelikoa, bretoiera, kornubiera eta manxera.

# Eleaniztasuna ikaskuntza goiztiarreko inguruetan



Irakasleen artean gero eta zabalduago dago haur baten etxeko hizkuntzaren balioa: ikaskuntzarako baliabide estrategikoa da, baita haren nortasunaren osagai integrala ere. Aitzitik, askok adierazten dute ez dutela behar adinako prestakuntzarik gelako hizkuntza-aniztasunari modu eraginkor eta egokian erantzuteko.

- **Hizkuntza-gaitasunak indartzen ditu, kontzientzia metalinguistikoa garatzen laguntzen du, eta autoestimua sendotzen du.**
- **Hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera ireki eta errespetuzkoa sustatzen duen ikaskuntza-ingurune inklusiboa bultzatzen du.**

## Ikerketaren eskutik: *Translanguaging* izeneko praktika

Praktika honen berri eman aurretik, garrantzitsua da jakitea hizkuntzak zurrun banatzen dituzten planteamenduak (denboraren, ikasgaiaren edo irakaslearen arabera banatutako planteamenduak) sarritan ez datozela bat haur eleaniztunek hizkuntza-trebetasunak modu naturalean erabiltzeko dituzten ohiturekin.

*Translanguaging* kontzeptua zenbait ikertzailek erabiltzen dute hiztun eleaniztunen komunikazio-praktika dinamiko eta malguak deskribatzeko. Haurtzaroan, komunikazio-egoeretan, haur eleaniztun askok modu naturalean jotzen dute praktika horretara: hizkuntzak diskurtso berean uztartzen dituzte, eta, horrez gain, gorputz-hizkuntza, keinuak eta bestelako baliabide semiotikoak baliatzen dituzte esanahia eraikitzeko.

***Translanguaging* terminoa galeserazko *trawsiethu* hitzetik datorkigu, eta Cen Williams hezitzaile galesak sortu zuen lehendabizi. Jatorrian, Galesen garatutako estrategia pedagogiko bati dagokio: hizkuntza nagusia (ingeleza) informazioa eskuratzeko erabiltzen zen, eta hizkuntza gutxitua (galesa), berriz, erabilera aktiborako. Hizkuntza gutxitua biziberritzea zen asmoa.**

Haur Hezkuntzako irakasleek, *translanguaging* praktikak baliatzen dituztenean, erraztu ohi dute komunikazioa eta indartu haurren ikaskuntza-prozesua. Hots, alfabetatzea, parte-hartzea eta ongizatea sendotzea dira.

Halaber, haurren hizkuntza-gaitasunak eta -identitateak aitortu eta balioesten dira. Helburu horiek lortzeko, askotariko estrategia pedagogiko erabil daitezke, besteak beste, itzulpena, haurren etxeko hizkuntzara egokitzea, adierazpenak bi hizkuntzatan berreraikitzea, haurren arteko hizkuntza-bitartekaritza sustatzea eta baliabide multimodalak integratzea. Jardunbide horiek irakasleen eta haurren arteko elkarreragina indartzen dute, eta irakasleei aukera ematen diete ikasleen hizkuntza-baliabideetatik ikasteko, harreman pedagogiko positiboak sendotuz. Era berean, haurrek gelako diskurtsoan aktiboki parte hartzen dute, eta irakurmen- eta idazmen-gaitasunak garatzen dituzte.

# Ba al zenekien?

## Hizkuntzen artean loturak eta elkarreraginak

Hizkuntzak modu isolatuan ikasi ordez, eraginkorragoa da hizkuntzen arteko loturak ezarriz ikastea. Euskal testuinguruan egindako ikerketek, bereziki Jasone Cenoz eta Durk Gorter irakasleen lanek, erakusten dute ikasgela berean bi hizkuntza edo gehiago erabiltzea estrategia pedagogiko eraginkorra dela. Hots, haur baten hizkuntza-errepertorio osoaren ulermen sakonagoa sustatzen duela. Betiere hizkuntza gutxituei behar duten arnagunea eskainiz, *translanguaging* jasangarriaren printzipioekin bat eginez. Hizkuntzak modu isolatuan eta elkarrengandik bereizita ulertzeak ez du islatzen hiztun eleaniztunen benetako hizkuntza-jarduna; izan ere, haur eta gazte eleaniztunek hizkuntzak modu integratuan erabiltzen dituzte, komunikatzeko baliabide gisa, hain zuzen.

EHUko DREAM (*Donostia Research Group on Education and Multilingualism*) ikertaldea nazioartean erreferentea da alor honetan: ekarpen garrantzitsuak egin ditu haurrek eta gazteek hizkuntza anitzaldi berean nola eskuratzen dituzten ulertzeko. Ikerketek hezkuntza eleaniztunaren zenbait dimentsio esanguratsu jorratzen dituzte, hala nola hizkuntza-gaitasuna, curriculum eta irakaskuntza-praktikak. Ikerketa-ildo nagusietako bat *translanguaging* pedagogikoa da. Translanguaging pedagogikoak ikasgeletan tradizionalki nagusitu den hizkuntzen banaketa zurruna auzitan jartzen duen ikuspegi didaktikoa da.

Ikuspegi hau erabiliz, irakasleek jarduera pedagogikoak diseinatzen dituzte ikasleek beren hizkuntza-errepertorio osoa modu aktiboan mobilizatzeko. Horrela, *translanguaging* pedagogikoan, hezitzaileek modu kontzientean lotzen dituzte ikasgelako hizkuntzak eta ikasleen hizkuntza-errepertorioak, ikaskuntza-prozesuak sendotzeko eta emaitza akademikoak hobetzeko helburuarekin.



## Ikasteko aukera ezberdinak

Zoritxarrez, haur elebkarrek eta eleaniztunek ez dituzte beti ikaskuntza-aukera berak izaten Haur Hezkuntzako testuinguruetan. Izan ere, helduek haiekin ezberdin jarduten dute, gehienetan oharkabean. Ondoren, bi adibide esanguratsu aztertuko ditugu. Niderlandera bigarren hizkuntza gisa irakastera bideratutako haur-eskoletan, irakaslea izan ohi da elkarreraginaren ardatz nagusia, eta ikasleen arteko elkarreragina mugatuagoa da; aitzitik, ohiko haur-eskoletan haurren arteko elkarreragin aberatsa da nagusi. Halaber, Herbehereetako zenbait haurtzaindegitan, berriki iritsitako haur migratzaileek euren denboraren zati esanguratsu bat (ia heren bat) igarotzen dute ikaskideekin inolako elkarreraginik gabe. Ohiko testuinguruetan ez da hala gertatzen.

Irakasleen eta haurren arteko elkarreraginaren desberdintasunak nabarmen ageri dira haurrek jasotzen duten laguntza motan ere. Haur eleaniztunen kasuan, irakasleek sarritan galderak sinplifikatzeko joera dute, eta horrek erantzuteko aukerak mugatzen ditu; haur elebkarren kasuan, aldiz, orientazio edo pista gehiago eskaintzen dizkiete, erantzuna modu autonomoan eraiki dezaten. Ondorioz, ikasle eleaniztunek, maiz, parte-hartze txikiagoa izaten dute, bai talde txikietan, bai talde handietan. Fenomeno hori ez da soilik hizkuntza-gaitasun edo konfiantza faltaren ondorio; aitzitik, estuki lotuta dago irakasleek eta zaintzaileek ezartzen dituzten elkarreragin-ereduekin.

**Máire Mhic Mhathúna doktoreak ekarpen esanguratsuak egin ditu alor honetan. Ikaskuntza goiztiarreko testuinguruetan egindako ikerketetan oinarrituta, bereziki *naíonraí* izeneko irlandera hutsezko haur-eskoletan, honako orientabide hauek proposatzen ditu:**

- elkarreragin aberats eta esanguratsuak sustatzea, adibidez, ipuin-kontaketa errepikatuaren bidez;
- jolasa eta eguneroko errutinak baliatzea, input aberatsa eskaintzeko.

Estrategia horiek batera erabilia, ikasleen parte hartzea areagotzen da. Ikerketek, gainera, erakusten dute hizkuntza-ikaskuntza ez dela soilik egoera formaletan gertatzen: une oro gerta liteke (esaterako, berokiak janztean). Horrenbestez, harreman formal zein informaletan jardunez, helduek modu eraginkorrean sustatu dezakete haur txikien hizkuntza-gaitasunen garapena.



# Komunikazioa eta elkarrizketa haurren hizkuntza-garapenean

Herbehereetako haur-eskoletako geletan egindako ikerketek erakusten dute, gela berean egon arren, ikasle guztiek ez dituztela aukera berdinak elkarrizketa sakon eta garatuetan parte hartzeko. Elkarrizketa landuek (*elaborative talk*) haurrei aukera gehiago ematen diete modu aktiboan parte hartzeko, eta horrek haien inplikazioa zein ikaskuntza-prozesuak indartzen ditu. Adibidez, ipuin-kontaktetan, irakasleek haurren ekarpenei modu landuan erantzuten dietenean, haurrek ideiak azaltzeko, loturak ezartzeko eta pentsamendua ahoz artikulatzeko aukera dute. Ondorioz, ikasgelako partaide aktibo bihurtzen dira, eta testuan agertzen denaz harago doazen hipotesiak eta interpretazioak garatzeko gai dira. Aitzitik, azaleko hizketak (*evaluative talk*) haurraren erantzuna baloratzera edo epaitzera mugatzen da (adibidez: "Bai, hori da", "Oso ondo", "Ez, hori ez da"), eta elkarrizketa etetera jotzen du. Horrek haurraren pentsamenduaren garapena mugatzen du, eta hizkuntza modu sakonagoan erabiltzeko aukerak murrizten ditu.

	Hizketa landua	Azalekoa	
Xedea	Sakonago pentsatzen eta ahozko ekoizpena zabaltzen lagundu.	Erantzuna zuzena ala okerra den egiaztatu.	
Irakaslearen parte hartzea	Jakin-mina piztu, eta parte hartzera eta ideiak partekatzerara animatu.	Laburra eta itxia, balorazioa helburu.	
	"Zergatik uste duzu hori?" "Zer gertatuko da gero, zure ustez?" "Nola sentitzen zara?" "Kontatu gehiago."	"Bai, hori da." "Ez, ez da zuzena." "Oso ondo."	
	Haurraren parte hartzea	Erantzun luzeago eta konplexuagoak; azalpena, irudikapena, hipotesiak eta loturak (istorioa, mundua eta esperientzia pertsonalak).	Erantzun laburrak, sarritan hitz bakarrekoak.
	Parte hartzea	Elkarrizketa dialogikoa: ideiak progresiboki garatzen dira.	Truke laburra; irakaslearen erantzunak eteten du.
Onura	Hiztegiaren garapena, irudimena, ulermena eta ahozko adierazpenean konfiantza sustatu.	Edukia egiaztatu.	
Adibidea	Liburuan untxi bat agertzen da: "Zergatik dago galduta untxia?" "Nola dakizu hori?"	"Zer animalia da hau?" "Bai, untxi bat da."	

# Guraso/Zaintzaile eta Haur Hezkuntzako profesionalen arteko harremana

Etxearen eta eskolaren artean hizkuntza- edo kultura-oinarri partekatua egon daiteke; hots, etxeko eta eskolako hizkuntza, ohitura eta ikuspegiaren artean parekotasunak egon daitezke. Egoera horri jarraitutasun kulturala deritzo. Kasu horietan, gurasoen eta hezkuntza-profesionalen arteko komunikazioa eta elkar ulermena errazago suertatu ohi da, eta haurrak hobeto moldatu ohi dira. Jarraitutasun kulturala ez dagoenean, berriz, zailtasunak egon daitezke.

**Gurasoen eta ikaskuntza goiztiarreko profesionalen arteko lankidetzak funtsezkoa da haurren garapen integralerako eta ongizaterako.**

Hizkuntza partekaturik ez dagoenean ere, profesionalek eleaniztasuna aitortu eta sustatzeko jarrera aktiboa izan dezakete, eta hizkuntza gutxituak erabiltzen dituzten familiekin harremana erraztu dezakete. Adibidez, hizkuntza horiek agurtu edo adierazpen laburrak trukatzeko erabil ditzakete. Halako praktikek jarraikortasun kulturala indartzen dute, eta haurren ongizatea eta garapena sustatzen dituzte. Ildo berean, gurasoei eta haurrei etxeko errutinei buruzko informazioa eskatzeak, edo haien etxeko hizkuntzako hitz eta esamoldeak partekatzeko gonbidapena luzatzeak, haurren kulturarekiko eta hizkuntza-ondarearekiko jarrera irekia erakusten du. Horrek, alde batetik, haurren segurtasun emozionala indartzen du, eta haien hizkuntzek aitortza jasotzen dutela erakusten du; bestetik, ikaskuntza-prozesua aberasten du. Zentzu horretan, ikaskuntza-prozesuan haurren aurretiko ezagutzan eta esperientzietan oinarritzeari *funds of knowledge* ikuspegia deritzo.

**Funds of knowledge** ikuspegiak familiek dituzten ezagutza, trebetasun eta esperientzia kultural anitzak aitortzen ditu. Ikuspegi honek haurren etxeko bizitzaren oinarri kultural eta historikoak ulertzeko aukera ematen du; hortik abiatuta, irakaskuntza-estrategia berritzaileak eta testuinguruari egokituak garatzeko bidea irekitzen du. Azken batean, helburua da irakaskuntzarako lankidetzak-harremanak eraikitzea eta ikaslearen jatorria zein gaitasunak errespetatzen dituzten irakaskuntza-bideak martxan jartzea. Ikaslea bere osotasunean aintzat hartzea eta ulertzea funtsezkoa da, eta horrela, irakasleek errazago sustatu dezakete ikaskuntza esanguratsua.

Bestalde, *funds of identity* ikuspegia aplikatzen denean (haurren identitatea aitortu eta ikasgelan legitimatu, adibidez, argazkiak partekatuz edo identitatearekin lotutako objektuak sortuz), ikasleen parte-hartzea indartu egiten da, eta ikasleek ikaskuntzarekiko jarrera positiboagoak garatzen dituzte. Gainera, ikuspegi honek ikaskideen arteko lankidetzak-gaitasunak ere indartzen ditu.



# Hirugarren Espazioa eta haur eleaniztunak

Hezitzaileek ikasgelan *hirugarren espazioak* eraiki ditzakete. Ikuspegi honen arabera, hizkuntzak ez dira entitate bereizi gisa ikusten; aitzitik, hizkuntzak eleaniztunek komunikatzeko duten modu malgu eta sortzaileak dira. Hizkuntza-espazio seguru hori sortzeko, langileek haur guztien esperientziak kontuan hartu behar dituzte; hau da, ikasle bakoitzari bere ezagutzak eta komunikazio-praktikak ikasketarako erabiltzeko aukera eman behar diote.

**Hizkuntzen erabilera malguak etxeko hizkuntzaren eta eskola-hizkuntzaren arteko distantzia murriztea ahalbidetu dezake, eta haurrek dituzten hizkuntza- eta kultura-ezagutzak baliatu.**

Praktika honek haur eleaniztunentzat espazio segurua sor dezake, eta ikasle bakoitzaren hizkuntza-erabilera propioak normaltzat hartu. Are gehiago, ikasgelako ohiko praktika bihurtzen denean, haurrek beren hizkuntza-gaitasun guztiak erabil ditzakete, adibidez, ekoizpen pertsonalen inguruan dihardutenean (irudi eta marrazkien inguruan hitz egitean).


## Gurasoekin Lankidetzaren Sendoa

Gurasoak modu aktiboan inplikatu behar dira praktika eleaniztunak ezartzean. Horretarako, hizkuntza aniztasunari eta eleaniztasunari buruzko informazioa partekatze bilerak antolatu daitezke, gelako ipuin-kontaktetan parte hartu dezakete, edo, besterik gabe, behar denean gurasoei itzulpenak eskatu dakizkieke.

Egia da irakasleek gelan pisu nabarmena dutela, baina gurasoek eragin handiagoa dute gelatik kanpo. Lankidetzaren botere-dinamika aberasgarria dakar: ikerketek erakusten dute gurasoen parte-hartzea faktore garrantzitsua dela haur baten eskola-arrakastarako. Gainera, konfiantza funtsezkoa da, gurasoek beren haurrak profesionalen esku uzten dituztelako. Harremanak aurrera egin dezan, gurasoek eta irakasleek botere-dinamika hauen jakitun izan behar dute, baita bakoitzaren ardurez jabetu ere.

Belgikan egindako ikerketa batek erakutsi du guraso eleaniztunek (gutxiengo hizkuntza bat hitz egiten dutenek) konfiantza handia eta komunikazio ona dutela ikaskuntza goiztiarreko profesionalekin. Baina ikerketak erakutsi du profesionalek hizkuntza nagusiak erabili ohi dituztela, eta ez dizkietela gurasoei beren etxeko hizkuntzako hitzen inguruan galdetzen. Horiek horrela, haur-eskolako langileek gurasoen kulturarekiko eta hizkuntzarekiko irekitasuna izatea garrantzitsua da. Hizkuntza eta kultura desberdinak ez aitortzeak haurrei beren ongizatean eta ikaskuntzan kalte egin diezaike, eta gurasoekin lotura sendoak eraikitzen zaildu dezake.

# Idea gakoak



**Esan bezala, eleaniztasuna egunerokotasunean modu aktiboan erabiltzean datza. Haur batek dakizkien hizkuntza guztiak malgutasunez erabiltzeko praktika irakaskuntza-tresna indartsua da.**

**Halaber, langileei komunikazioa hobetzen laguntzen die. Gainera, ikaskuntza-prozesua aberasten du, eta haurren hizkuntza-gaitasun eta identitateen osotasuna aitortzen ditu. Eleaniztasuna integratzeak hizkuntza guztien balioa onartzea dakar, baita ere *translanguaging* bezalako praktika malguak erabiltzea zein etxearen eta eskolaren arteko lotura sendotzea.**

Haurren hizkuntza-ikaskuntza lau fasetan garatzen da. Jaiotzetik, aldi berean, hizkuntza bat baino gehiago ikasten dituzten haurrek fase hauek hizkuntza guztietan aldi berean igarotzen dituzte. Hizkuntzak bata bestearen atzetik ikasten dituzten haurrek, berriz, fase hauek banan-banan igarotzen dituzte, hizkuntza bakoitzean. Garapen horretan, hizkuntzen arteko aldeak, jarrerek eta alfabetatze-praktikek eragiten dute.

Hizkuntza-aniztasuna eta eleaniztasuna onartzea onuragarria da haur guztientzat. Haur baten hizkuntza-gaitasunak onartzen ditu, bere autoestimua eta hizkuntzen kontzientzia indartzen ditu, eta hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera irekia sustatzen du.

Gurasoen eta ikaskuntza goiztiarreko profesionalen arteko lankidetzak ezinbestekoa da haur baten garapenerako eta zoriontasunerako. Hizkuntza eta kultura anitzekiko jarrera irekia eta prestutasuna izateak gurasoekin harremanak indartu egiten ditu, eta haurren ikaskuntza-esperientziak eta irakurmenaren garapena aberasten ditu. Etxearen eta eskolaren arteko jarraitutasun kulturala (hizkuntza, kultura eta jatorri antzekotasunak) dagoenean, elkar ulertzea eta konfiantza eraikitzen dira.

***Funds of knowledge* ikuspegiak esan nahi du haur batek eskolatik kanpo eskuratzen dituen ezagutzak, trebetasunak eta esperientziak baloratzea, eta horrek haurren interesetan oinarritutako irakaskuntza-estrategiak garatzeko ideiak eskaintzea.**

# Haur eleaniztunen garapena

## Iradokizunak:

Aitortu ikasgelako hizkuntza guztiak.  
Erabili beste hizkuntzetako sortutako abestiak, errimak eta ipuinak, eskola-hizkuntza(n) irakasteaz gain.  
Honek mezu argia bidaltzen du: hizkuntza guztiak baliotsuak dira ikasteko.

**Haur hezkuntzako eta haur eskoletako langile eta guraso/ zaintzaileentzat, hizkuntza-ingurune inklusibo eta lagungarria sortzeko zenbait iradokizun.**

Irakatsi eta komunikatu egun osoan zehar, ez soilik hizkuntza-saio espezifikoeetan. Erabili hizkuntzak bazkarietan, atsedendietan eta jolas libreko tarteeetan.

HOI

CZEŚĆ!

Eman aukera hizkuntza-gaitasun guztiak aktibatzen eta erabiltzeko. Bultzatu jolasa, artea eta antzerkia; haurrek modu naturalean erabiliko dituzte beren hizkuntza-gaitasunak, eta ez dira hizkuntza bakar batera mugatuko.

DIA DUIT

Onartu eta bultzatu hizkuntza guztien erabilera ikasgelan; horrek ikusgarritasuna emango die hizkuntza guztiei, baita hizkuntza gutxituei ere. Eta hizkuntza horien estatusa indartuko da. Ariketa modu sinpleen bidez bermatu daiteke.

KAIXO

MERHABA

**Ba al zenekien?**

Euskara Europan bizirik dagoen hizkuntzarik zaharrena da. Gainera, ez da Europan hitz egiten diren gainontzeko hizkuntzen hizkuntza-familietakoa. Hizkuntza isolatua da, eta haren jatorria ezezaguna!  
Beraz, euskara eta gaztelania dakizkitenek bi hizkuntza oso ezberdin hitz egiten dituzte.

## Komunikazioa eta elkarrizketa

**Baloratu hurrek dagoeneko garatu dituzten hizkuntza-gaitasunak. Arreta jarri haien keinuetan, musikan eta ikusizko adierazpenetan, eskola-hizkuntzako ahozko zein idatzizko ekoizpenei soilik erreparatu beharrean. Ziurtatu haur guztiek aukera berdinak dituztela ikaskuntza-prozesuan parte hartzeko, eskola-hizkuntza menderatzen ez badute ere. Eman hurrei beren burua adierazten, edozein hizkuntza baliatuz, baita ere keinu, marrazki eta bestelako hitzik gabeko komunikazio bidez.**

Baliatu hizketa landua: galdetu galdera sakonak, lotu edukiak hurren esperientzia pertsonalekin eta aurretiko ezagutzekin, eta animatu ikaskideen arteko elkarreragina zein ideien eztabaida. Azken honetarako, adibidez, estrategia hauek dira lagungarriak: galdera irekiak formulatzea, laguntza egokia ematea, adibide ugari eskaintzea eta iradokizun erabilgarriak proposatzea.

Azken finean, lagundu haur eleaniztunak beren hizkuntza-garapenean. Horretarako, adibidez, itzulpenak erabili, hurren etxeko hizkuntzara aldatu, bi hizkuntzetan gramatika zuzendu (ahal bada), edo hizkuntza-lagun bikoteak sortu.

## Eskolaren eta etxeko arteko lankidetzak

**Sustatu eskolaren eta etxeko arteko jarraitutasuna eta loturak. Ahal den neurrian, erabili hurren etxeko hizkuntzak, eskatu gurasoei itzulpenak egiteko edo gonbidatu gurasoak etxeko hizkuntzan irakurketa-jarduerak gidatzera. Eraiki harreman positiboa familiekin; horretarako hizkuntza- eta kultura-aniztasunari buruzko ikuspegi irekia eta positiboa izan.**

Galdetu guraso zein zaintzaileei hurrek etxean hitz egiten dituzten hizkuntzei buruz. Sortu harreman sendoa etxekoekin. Batetik, galdetu beren hurrei buruz, adibidez, zer-nolako jarduerak diren eraginkorrenak haien haur bakoitzarentzat, eta horiek deritzon unean egokitu. Bestetik, gurasoak modu aktiboan inplikatu ikasgelan: hitz egin haiekin haien hurren hizkuntzei buruz, sortu afixa edo laguntza-mahai bat, gonbidatu noizean behin gurasoak ipuin elebidunen kontaketa-saioak gidatzera, eta eskatu gurasoei itzulpenetan laguntzeko.

# Irakurmena eta idazmena ikaskuntza goiztiarrean



**Eskuliburuaren azpiatal honetan, hauren irakurmenean eta idazmenean jarriko dugu arreta: mundu moderno eta hedabidez aberats honetan (multialfabetatzea), hasierako irakurmena eta idazmena (alfabetatze goiztiarra) izango ditugu hizpide.**

**Gainera, arreta goiztiarreko eremuetan liburuen (liburu digitalak barne) irakurketa elkarreragilea eta inklusiboa nola bideratu aztertuko dugu.**



# Alfabetatze eleaniztun goiztiarra

Ikaskuntzaren ikuspegi sozialaren arabera, haur txikiek irakurtzen eta idazten ikasten dute, beren inguruneari erreparatuz eta helduek zein hurrek testu idatziak nola sortzen duten ohartuz. Faktore sozialek eta ekonomikoek ere eragina dute alfabetatze prozesuan. Izan ere, ikerketek erakusten dute irakasleek batzuetan errenta baxueneko etxeetako familiengandik inplikazio gutxiago espero dutela.

ECEC geletan alfabetatzea sustatzeko modu eraginkor bat da hizkuntza guztiei ikusgarritasuna ematea, horma-irudi, liburu, pegatina, etiketa eta irudien bidez. Horrela, eleaniztasuna eskola-paisaia ikusgai dago, eta ikasgelak atseginagoak eta inklusiboagoak dira haur eta familia guztientzat.

## Alfabetatzearen hasiera

Marrazkiak dira hurrek irakurtzen eta idazten ikasten hasi izanaren lehen seinaleak. Gero, pixkanaka ikasten dute markei esanahia ematen. Hauek dira garapen horren faseak:



Aipaturiko marrazki, zirriborro eta testuen inguruan sortzen diren elkarrizketak ezinbestekoak dira. Elkarrizketa horien bitartez, hurrek beren testuinguru hurbilean ohikoak diren idazketa- eta irakurketa-praktiken ekoizpenean segurtasuna irabazten dute. Haur eleaniztunen eta haur elebakarren alfabetatze-prozesuak, oro har, berdinak dira. Hala ere, testu idatziak etxean zein komunitatean erabiltzeko moduak askotarikoak izan daitezke, eta egoera horrek, zenbaitetan, arazoak bat sor ditzake. Alde batetik, eskola-hizkuntzan irakurtzea eta idaztea ikaskuntza formalarekin lotu dezakete; bestetik, etxeko hizkuntzan egiten diren irakurketa- eta idazketa-praktikak ez dira beti berdin baloratzen, hizkuntza horiei eta haiekin lotutako gaitasunei estatus txikiagoa aitortzen baitzaie.

Ondorioz, haur eleaniztunek, maiz, beren ikaskideek baino zailtasun handiagoak izan ditzakete; izan ere, ez dute beti aukerarik eskuragarri dituzten hizkuntza-baliabide guztiak irakurketan eta idazketan erabiltzeko.

Hori dela eta, garrantzitsua da eskola-hizkuntzatik kanpoko testu-praktikak ere balioestea; esaterako, komunitateko seinaleak irakurtzea, erosketen zerrendak idaztea edo sare sozialak erabiltzea. Horrela, haur guztiek beren gaitasunak osotasunean erakusteko aukera izango dute.

Ikerlariek diote irakurketa eta idazketa ez direla prozesu bereizi gisa ikusi behar, baizik eta elkar elikatzen duten prozesu bakar gisa. Honek, hizkuntzaren erabilera eleaniztuna hobeto ulertzen laguntzen du, kontzeptu simple eta aurkakoak erabili gabe (irakurketa versus idazketa).

# Alfabetatze goiztiarraren garapenerako baliabide digitalak



**Irakurketa-jarduerek ez dute soilik irakurketa ozena barne hartzen; aitzitik, komunikatzeko beste hainbat modu ere biltzen dituzte, hala nola adierazkortasuna, ahotsen erabilera anitza, aurpegi-adierazpenak eta antzezpena.**

**Horrenbestez, audioliburuak eta aplikazio digitalak tresna baliagarriak dira irakurmenaren garapena sustatzeko. Gainera, baliabide digitalek, neurri batean, irakurketa partekatuan helduek izan ohi duten eginkizuna har dezakete. Adibidez, audioak istorioa aurrera doan heinean galderak planteatu ditzake, edo aukera anitzeko galderetan orientabideak eskaini. Hala ere, kontuan izan behar dugu baliabide digital horiek ezin dutela helduen eginkizuna guztiz ordezkatu.**

**Nolanahi ere, hezkuntzan, teknologiaren erabilera egokiak eragin positiboa du haurren irakurmenaren eta idazmenaren garapen goiztiarrean. Ildo horretan, Haur Hezkuntzan tresna digitalak bereziki baliagarriak izan daitezke hizkuntza-ikaskuntza sustatzeko; izan ere, baliabide digitalei esker, haurrek askotariko moduak izan ditzakete naturalki komunikatzeko eta ulermena eraikitzeko. Aplikazio horiek elementu interaktibo ugari txertatzen dituzte, besteak beste, soinuak, grafikoak eta animazioak. Eta horien erabilera egokiak ikaskuntza sustatzeko bide eraginkor eta erakargarria eskaintzen du. Halaber, sormena eta lankidetzaren sustatzen dituzten aplikazioek haurrei hiztegia aberasteko aukera ematen diete, eta, aldi berean, beste haur batzuekin zein helduekin elkarreragina bultzatzen dute.**

# Ba al zenekien?

## Irlanderaren ikuspegi eleaniztuna

- Irlandera (irlanderaz *Gaeilge*) Eiren hitz egiten den hizkuntza zelta da, eta estuki lotuta dago eskoziar gaelikoarekin eta manxerarekin (Man uhartean hitz egiten den hizkuntza).
- Irlandera Eireko lehen hizkuntza ofiziala da, eta ingelesa, bigarrena. Horrez gain, Europar Batasuneko lan-hizkuntza ofizialetako bat ere bada. Estatus ofiziala izan arren, irlandera hizkuntza gutxitua da, eta, neurri batean, arriskuan dago, hezkuntza-esparrutik kanpoko hiztunen kopurua behera baitoa.
- Eiren, 6 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat derrigorrezkoa da irlandera eskolan ikastea. Datuen arabera, biztanleriaren % 40 inguruk irlandez hitz egiteko gaitasuna du; hala ere, hizkuntza hori dakiten hamar pertsonatik batek bakarrik adierazten du ondo hitz egiteko gai dela.
- 2022ko azken eroldaren arabera, 70.000 lagun inguruk erabiltzen dute irlandera egunero eskolaz kanpo, hau da, biztanleria osoaren % 1,4k, gutxi gorabehera.
- Azken urteotan, irlandezko hezkuntza-eredua duten eskolen eta haur-eskolen kopurua handitzen ari da, eta gero eta interes handiagoa dago hizkuntza hori ikasteko, bai sare sozialetan, bai komunitatean. Ildo horretan, gobernuak konpromisoa hartu du irlandera hizkuntza bizia izan dadin, eta ez soilik eskola-esparrura mugatutako hizkuntza.
- *Naíonraí* sei urtetik beherako haurrentzako irlandera hutseko haur-eskolak dira. Bertan, jolasaren bidez lantzen da haurren garapen integrala. *Stiúrthóiríek* (hezitzaileek) irlandera erabiltzen dute komunikazio-hizkuntza gisa, bai hizkuntza hori lehen hizkuntza duten haurrekin, bai ikasten ari direnekin. Hizkuntza-ingurune aberatsa sortzeko, ikuspegi integrala duen hezkuntza-eredua dago errotuta. 1968an lehen *Naíonraí* sortu zenetik, 325 haur-eskola inguru sortu dira, eta kopuruak gora egiten jarraitzen du.



**Ipuin digitalek informazioa hainbat euskarritan aurkezten dute, esate baterako, testu, audio, irudi eta animazio bidez. Horiek guztiek haurraren hizkuntza-ulermena hobetu dezakete.**

### **Nolakoa da ipuin digital on bat?**

Ezaugarri interaktiboek (adibidez, ukipen bidez aktibatzen diren animazioak edo jolas laburrak) ulermena lantzen lagun dezakete. Baina horretarako ezinbestekoa da haurrak istorioaren haria galdu gabe arreta mantentzea. Zentzu horretan, aukera gehiegi eskaintzeak (esaterako, orriak etengabe aldatzea, animazioak aktibatzea edo gehiegizko jolasetarako sarbidea) arreta galtzeko arriskua handitzen du.

Liburu digital bateko elementu guztiek istorioarekin lotura zuzena izatea garrantzitsua da. Irudi eta soinu egoki integratuek (ausaz jarrita izan beharrean) haurrei informazioa hobeto prozesatzen laguntzen diete, gainkargarik sortu gabe. Horri esker, hiztegia errazago barneratzen dute, eta istorioaren ulermena zein oroimena ere indartzen dira.

Aipagarria da funtzionalitate gehigarri gutxiko ipuin digitalek, liburu fisikoen irakurmenarekin alderatuta, ulermenean eta oroimenean emaitza antzekoak izaten dituztela.

Ikerketek erakutsi dute elementu interaktiboek haurren inplikazioa handitzen dutela. Izan ere, haurrei kontrol handiagoa ematen diete, eta irakurketa partekatuan gehiago parte hartzera bultzatzen dituzte.

### **Audioliburuak alfabetatze goiztiarra sustatzeko tresna digitalak ere badira!**

Audioliburuak euskarri eroso eta irisgarria eskaintzen dute, bereziki haur eleaniztunei. Gainera, istorioa entzun bitartean, beste jardueraren bat egin dezakete, besteak beste, mugi daitezke (eskuak astindu edo dantzatu), eta horrek irakurketa aktibatzen du.

Ikerketek erakusten dute, istorioak irakurri edo entzun, haurrek antzeko mailan ulertzen dituztela ipuinak. Noski, istorioa aldi berean entzun eta irakurtzen denean, ulermena sendotu egiten da.

Audioliburuak beste hainbat abantaila dakartzate. Honako hauek dira aipagarrienak: haurrei hitzen ahoskeraren eredu egokia eskaintzen diete, eta istorioa jarraitzeko laguntza gehigarria eskaintzen diete, irakurketarako trebetasunak oztopatu gabe.

Batzuen ustez, audioliburuak ez dira benetako liburuak, narratzaile batek haurraren ordeztan irakurtzen duelako testua. Hala ere, baliabide oso erabilgarriak dira edozein irakurketa-programatan, bai etxean, bai eskolan.



## **AHOLKU EZIN HOBEA!**

Saiatu ikasgelan audioliburuak eta paperezko liburuak batera erabiltzen. Horrela, haurrek ipuina aldi berean entzun eta irakurri ahal izango dute.

# Teknologia berriak

**Errealitate areagotua (EA)** gailu digitalen bidez sortzen den esperientzia interaktiboa da, eta, errealitate areagotuaren bidez, irudi digitalek mundu errealari informazio edo elementu berriak gehitzen dizkiote. EA duten ipuinek haurrei autonomia handiagoa ematen diete, irakurketan kontrol pixka bat izateko aukera eskainiz. Gainera, irakurketa interaktiboagoa bihurtzen dute, eta horrek parte-hartzea eta ikaskuntza sustatzen ditu.

**Adimen artifiziala (AA)** ere tresna erabilgarria da alfabetatze goiztiarra lantzeko. Hala ere, tamalez, arlo honetan dagoen ikerketa oraindik mugatua da, teknologia berri-berria baita. Eta burutu diren ikerketek AAren erabilera arreta jarri dute, baina ez AAK irakurketan nola lagundu dezakeen aztertzean. Gainera, gaur egungo tresna askok ez dituzte haur txikientzat beharrezkoak diren segurtasun-baldintzak betetzen.

Etorkizunean, litekeena da adin bakoitzerako egokiak diren tresna seguruagoak garatzea.

## Irakurketa partekatua

Alde batetik, ipuinak irakurtzea funtsezkoa da haurren irakurmen eta idazmen garapen goiztiarrerako. Izan ere, ipuinen irakurketak onura hauek ditu haurrengan: hiztegia zabaldu, istorioak ulertzen lagundu eta irakurketarako interesa piztu.

Bestetik, ikerketek erakusten dute irakurketa partekatuak zenbait onura dituela. Hots, heldu baten (irakaslea, gurasoa edo zaintzailea) eta haurraren arteko elkarreragina bereziki garrantzitsua dela. Irakurketa partekatuan, haurrek hiztegia aberasten dute eta idatzizko hizkuntza hobeto ulertzen dute.

Illo horretan, irakurketa partekatuak aukera ematen du haurrek istorioan modu aktiboan parte hartzeko. Adibidez, istorioa beren bizipenekin lotzeko, istorioaren inguruko aurreikuspenak plazaratzeko edo argumentuari buruzko ondorioak aurkezteko.

### Liburu digitalen onurak



**Liburu digitalak erabilgarriak izan daitezke oraindik eskola-hizkuntza ikasten ari diren haurrentzat. Baliabide digitalek, batez ere, hitzak irudiekin lotzen dituztenek, haurrei istorioaren irudi mentala sortzen laguntzen diete, ulermena errazago eginez.**

**Hizkuntza bat ikasteko eraginkorragoa da galderak egitea eta haurra elkarrizketetan parte hartzea, hitz zehatzak soilik seinalatzea baino. Elkarreragina eta elkarrizketa sustatzeko estrategia eraginkor hauek ditugu:**

- Elkarrizketa landua eta galdera irekiak erabiltzea
- Erantzun positiboak ematea
- Parte hartzera animatzea
- Ipuinaren eta haurraren bizitzaren arteko lotura egitea

# Ba al zenekien?

Europar, 84 hizkuntza gutxitu daude aitortuta.  
Hizkuntza horiek 209 komunitatek hitz egiten dituzte.

Hizkuntza gutxitu horien aitortza Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunaren eskutik dago jaso.

**Myrte Gosen doktoreak irakurketa partekatua izan du ikergai nagusi, eta haur txikiek hizkuntza nola ikasten eta ulertzen duten aztertu du. Bere lanek erakusten dute ez dela nahikoa testuko hitzak irakurtzearekin; funtsezkoa da irakasleen eta haurren arteko elkarrekin, hau da, istorioaz nola hitz egiten duten eta nola parte hartzen duten elkarrekin.**

Aipatu berriko elkarrekin horiek haurrei laguntzen diete ulermena eraikitzen, kontzeptuak garatzen eta hizkuntzarekiko konfiantza izaten. Gosen doktoreak eginiko ikerketaren aurkikuntza nagusietako bat honako hau da: haurrek gehiago ikasten dute istorioari buruzko eztabaidetan modu aktiboan parte hartzen dutenean pasiboki entzuten dutenean baino. Adibidez, irakasleek irudiei, istorioan jasotako gertakariei edo pertsonaien sentimenduei buruzko galdera irekiak egiten dituztenean. Estrategia horien bidez, haurrek ideiak lotzeko, hitz berriak erabiltzeko eta istorioaren ulermen sakonagoa izateko aukerak dituzte. Horrek guztiak erakusten du irakurketa partekatua gelan nahiz etxean erabil daitekeela, eta biziki onuragarria dela hizkuntza- eta alfabetatze-garapen goiztiarrean.

**Gosen doktorearen lanak** azpimarratzen du liburu baten benetako balioa haren inguruan sortzen den elkarrekin dagoela. Ez dira soilik hitzak garrantzitsuak; garrantzitsua da helduen eta haurren arteko hizketa. Horretarako, estrategia eraginkor bat da irakurketa etetea eta galderak egitea. Esate baterako, pertsonaia baten sentimenduei edo irudi deigarri bati buruz galdetzea. Horrela, haurrek hitz egiteko espazioa izango dute, eta entzule izatetik parte-hartzaile aktibo izatera igaroko dira. Haurrek modu aktiboan parte hartzen dutenean, ez dituzte bakarrik hitz berriak ikasten; mundua ulertzeko eta harekin konektatzeko konfiantza ere garatzen dute.

# Irakurketa partekatuaren onurak

Hizkuntzaren, alfabetatzearen eta pentsamendugaitasunen garapenean, honako hauek eragin positiboa dute: galdera irekiak egiteak, haurraren interesak kontuan hartzeak eta haren ekarpenak ikaskuntza-prozesuaren abiapuntu izateak.

Gainera, irakurketa partekatuak gaitasun sozioemozionalak garatzen laguntzen du, hala nola beste ikuspegi batzuk ulertzea eta besteen sentimenduak hautematea.

Haur eleaniztunei begira, irakurketa partekatuan, irakasleek haurren etxeko hizkuntzak aitortu eta balioztatu ditzakete, horiek ere irakurketan ikusgai eginez. Adibidez, gurasoak edo zaintzaileak gelara gonbidatu ditzakete, eta istorioaren atal bera hizkuntza beste hizkuntzan irakurtzeko proposatu diezaiekete. Era berean, audioliburuak edo beste hizkuntzatan dauden liburu digitalak erabiltzeak lagundu dezake haur eleaniztunek istorio nagusia hobeto ulertzen.

Bestalde, ikaskideen arteko irakurketa ere oso baliagarria da. Adin nagusiko hurrek eta gazteagoek elkarrekin irakurtzen dutenean eta istorioei buruz mintzatzen direnean, alfabetatzea zein hiztegia indartzen dira, eta motibazioa ere handitzen da. Eskola-hizkuntza ez den hizkuntza bera partekatzen badute, gainera, etxeko hizkuntza eskola-hizkuntzarekin lotzeko aukera dute.

Irakasleek estrategia hauek erabiltzen dituztenean, haurrak modu aktiboan parte hartzera animatzen dira, eta horrek elkarriketa esanguratsuak sortzen ditu. Elkarriketa horiek funtsezkoak dira hizkuntza-ikaskuntzarako, ezagutza garatzeko eta arrazoiketa lantzeko. Esate baterako, hurrek arazo baten aurrean irtenbideak proposatzen dituztenean, beren pentsamendua eta ikaskuntza agerian uzten dituzte. Elkarreragin horiek ondo funtzionatzen dute, heldua eta haurra komunikazio-prozesuaren parte aktibo gisa ulertzen direlako.

## Liburu inklusiboak eta irakurketa

Ikastalde bati irakurtzean, garrantzitsua da kontuan hartzea haur guztiek ez dituztela esperientzia eta aukera berdinak izan irakurtzen ikasteko.

## AHOLKU EZIN HOBEA!

### Istorio-poltsak sortu

Ipuinez eta bestelako baliabideez beteriko poltsa bat prestatu! Ipuinak eta istorioarekin lotutako jostailu txikiak zein objektuak sar daitezke. Hurrek material horiek erabil ditzakete irakurriko dutena hobeto ulertzeko eta istorioak asmatzeko. Gomendagarria da, halaber, guraso edo zaintzaileentzako ohar bat gehitzea. Liburua amaitutakoan, hurrek poltsak truka ditzakete.

**The Storytime Project** bost asteko alfabetatze programa bat da. **Dublingo** liburutegietan garatzen da, eta **Marino Institute of Education** eta **Northside Partnership** erakundeekin elkarlanean dago antolatuta. Programaren baitan, gurasoek etxean erabiltzeko irakurketa partekaturako estrategiak ikasten dituzte.

Familiek liburuak etxera eramaten dituzte eta astero laguntza jasotzen dute. Horrela, haurrek ahozko hizkuntza eta hiztegia garatzen dituzte, gurasoek seme-alabekin irakurtzeko konfiantza irabazten dute, eta familien eta tokiko liburutegien arteko loturak sendotzen dira. Programak, gainera, gurasoak irakurtzen jarraitzera animatzen ditu, liburuak amaitu ondoren ere. Programaren amaieran ospakizuna antolatzen dute, programa amaitzeagatik ekitaldi bat, hain zuzen.

Joan Kiely doktoreak **The Storytime Project** programa martxan jarri zuen, eta haren lanak irakurketa partekatuen garrantzia azpimarratzen du. Zehazki, haren ikerketen arabera, irakurketa partekatuan, helduek haurrarekin batera ipuinak irakurtzen dituzte, istorioari buruz hitz egiten dute, eta haurraren bizipenekin lotzen dute irakurritakoa, irakurketa ozen hutsera mugatu beharrean. Helburua da, pixkanaka, haurra bera "irakurle" bihurtzea: istorioa helduari kontatzea, eta, horrela, egitekoak trukitzea. Hauek dira helduek garatu ditzaketen estrategiak:

**E**

**Eman jarraipena istorioari**, hurrei istorio ezagunen pasarteak edo esaldiak osatzeko eskatuz.  
*Orduan, hiru txerrixoak etxetik atera ziren, eta etxe bat\_\_\_\_\_*

**G**

**Gogoratu istorioa**, irakurritakoa edo istorioan gertatutakoa gogora ekartzea eskatuz.  
*Otsoak txerrixo guztiak jan al zituen?*

**I**

**Identifikatu xehetasunak eta azaldu**, galdera zehatzei erantzunez.  
*Zertan ari da otsoa adreiluzko etxearen teilatuan?*

**Z**

**Zabaldtu elkarrizketa**, galdera irekiak eginez.  
*Zer ari da pentsatzen otsoa irudi honetan, zure ustez?*

**U**


**Uztartu istorioa eta bizipenak**, hau da, lotu istorioa haurraren esperientziekin, emozioekin eta eguneroko bizitzarekin.  
*Begiratu txerrixoa, beldurtuta. Sentitu al zara inoiz horrela?*

Oharra: ingeleseko CROWD estrategien itzulpena egin da. Crowd: Completion prompts; Recall prompts; Open-ended prompts; What, when, where and why prompts; Distancing prompts.

# Ba al zenekien?

## Euskararen ikuspegi eleaniztuna

- Euskara hizkuntza berezia da Europan: kontinentean bizirik dirauen hizkuntzarik zaharrena da.
- Ez dago euskararen eta inguruko hizkuntzen arteko lotura argirik, eta, gaur egun ere, haren jatorria ez dago guztiz argituta.
- Euskara Euskal Herrian hitz egiten da, hau da, Espainiako iparraldearen eta Frantziako hego-mendebaldearen artean kokatutako lurraldean.
- Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), 800.000 pertsona inguruk euskaraz modu errazean hitz egiten dute, eta beste 400.000 lagun inguruk ulertzen dute, nahiz eta mintzatzeko zailtasunak izan.
- Haur Hezkuntzak funtsezko eginkizuna du euskararen transmisioan eta biziberritzean. Azken urteotan, bereziki, gero eta presentzia handiagoa hartu du hizkuntza-murgiltzeak etapa honetan.
- Donostiako Haur Liburutegi Nagusiak ekarpen garrantzitsua egiten du haurren alfabetatzea sustatzeko. Horretarako, euskarazko haur-literatura bultzatzen du, ipuin-kontaketa eleaniztunak antolatzen ditu eta familiei baliabide ugari eskaintzen dizkie.



# Irudi anitzak materialetan

Haur eleaniztunak ez dira beti agertzen irakurtzen dituzten liburuetan. Horrek esan nahi du askotan ez dutela beren burua islatuta ikusten irakurtzen dituzten ipuin zein liburuetan. Egoera egokienean, eskuragarri duten literaturan, haur guztiek beren burua islaturik ikusteko aukera izan beharko lukete, ondorio positiboak baititu haiengan. Baina agertu ezean, ondorio negatiboak izan ditzake; adibidez, etnia edo jatorri desberdinetako haurrek ezin badute beren burua pertsonaiekin identifikatu, eragin negatiboa izan dezake haien autoestimuan eta irakurzaletasuna.

## Parte-hartzean berdintasuna bermatzea

Irakurketa hasi aurretik, bitartean eta ondoren **hizkuntza-jarduera malguak** erabili daitezke. Adibidez, estrategia benetan aberasgarria da istorioari buruz hizkuntza batean hitz egitea eta beste batean irakurtzea edo audio-liburuaren bertsioa entzutea. Honelako jarduera malguak haur eleaniztunek testua hobeto ulertzen lagundu dezakete.

Gelako helduek funtsezko eginkizuna dute **hizkuntza guztiak aitortuak** izan daitezen, eta jardueretan parte-hartzean desorekarik sor ez dadin.

Bestalde, istorioaren pasarte nagusiak irudikatzen dituzten **objektu fisikoak** (baloiak, babarrun-poltsak, txapelak...) erabiltzea eta istorioaren zatiak antzetzea oso baliagarria izan daiteke.

Roel van Steensel irakaslearen ikerketaren arabera, gurasoek funtsezko zeregina dute irakurketa-ingurune aberatsa sortzen eta haurren irakurketarako motibazioa sustatzen.

Etxean liburuak izatea, berez, ez da nahikoa: benetan eraginkorra dena da elkarreraginaren kalitatea. Ikerketek azpimarratzen dute etxeko alfabetatze-ingurunearen garrantzia, eta hezitzaileen eta familien arteko lankidetzaren beharra.



## AHOLKU EZIN HOBEA!

Global Storybooks webguneak mundu osoko hizkuntza askotan doako ipuin ilustratuak eskaintzen ditu: [globalstorybooks.net/](http://globalstorybooks.net/) Ipuinak irakurri, ozen landu eta deskargatu daitezke.



Read with MEE  
irakurketa eleaniztun goiztiarra

# Gako-ideiak: Irakurketa eta idazketa ikaskuntza goiztiarrean



## Alfabetatze goiztiarraren oinarriak

**Haurren alfabetatze-prozesua inguruko idatzitako hitzak behatuz eta haiekin elkarreraginez hasten da.**

**Prozesu horretan, hainbat faktorek eragina dute:**

- Familia baten egoera sozioekonomikoak baldintza ditzake irakasleek gurasoen parte-hartzeari buruz dituzten itxaropenak.
- Alfabetatze goiztiarra pixkanaka garatzen da: lehen marrazki sinpleetatik hasi, eta gero letren antza duten ikurrak erabiltzeraino. Hasierako idazketa horiei buruzko elkarrizketek garapen hori sendotzen dute.
- Hizkuntza bakarra hitz egiten duten haurrek eta haur eleaniztunek antzeko bideak jarraitzen dituzte irakurtzen eta idazten ikasteko. Hala ere, etxeko hizkuntzaren estatusak, eskola-hizkuntzarekin alderatuta, eragina izan dezake haien ikaskuntza-esperientzian.
- Horregatik, garrantzitsua da haurrek eskolaz kanpo idatzizko hizkuntzarekin dituzten harreman guztiak aintzat hartzea, ez bakarrik eskolako jarduera formalak.

## Tresna digitalen ekarpena

- Ipuin-liburu digitalek eta aplikazioek, beren ezaugarri interaktibo eta bisualei esker, haurren arreta erakartzen dute, hitz berriak ikastea errazten dute eta istorioen ulermena hobetzen dute.
- Liburu digitalak eta audio-liburuak erabilgarriak dira, besteak beste, ahoskera egokia eta nolabait eredugarria emateko. Hala ere, ez dute ordezkatzeko heldu baten lana.
- Helduak galderen eta elkarrizketaren bidez haurrak aktiboki inplikatzeko dituenean, irakurketa partekatuak eragin handia du hizkuntza- eta ulermen-garapenean.
- Horretarako, estrategia eraginkorrek dira galdera irekiak egitea, haurraren interesak jarraitzea eta istorioa bere bizipenekin lotzera animatzea. Horrela, haurraren parte-hartze aktiboa indartzen da.

# Praktika inklusiboak



**Ikasgela eleaniztunetan praktika inklusiboak garatzea funtsezkoa da haur guztiek beren burua ordezkatuta sentitzeko eta parte hartzeko aukera errealak dituztela bermatzeko.**

- **Hizkuntza-jarduera malguak erabil daitezke, haurren etxeko hizkuntzaren eta eskola-hizkuntzaren arteko tartea murrizteko. Horrela, haurren alfabetatze-prozesu orokorra ere indartuko da.**
- **Jarduera horiek askotarikoak izan daitezke: tresna digitalak edo audio-liburuak erabiltzea, irakurgai eleaniztunak txertatzea, irudi-liburuak antzeztea edo ahoz irakurtzean objektu eta atrezzoak baliatzea. Helburua da haurrei istorioarekin hainbat modutan konektatzeko aukera ematea.**
- **Ildo berean, gurasoak etxeko hizkuntzan irakurtzera gonbidatzea edo lagun-irakurketa sustatzea estrategia eraginkorrek dira etxeko hizkuntzak eguneroko irakurketa-praktiketan integratzeko.**

# Ba al zenekien?

## Frisieraren ikuspegi eleaniztuna

- Frisia (frisieraz *Fryslân*) Herbehereetako iparraldeko probintzia da, eta eskualde eleanitza da. 660.000 biztanle inguru bizi dira bertan, eta % 60tik gora du frisiera lehen hizkuntza edo etxeko hizkuntza gisa. Frisiera (frisieraz *Frysk*) hizkuntza gutxitua da, baina probintzian ofizialtasuna du nederlanderarekin batera.
- Hizkuntza ofiziala bada ere, erabileran desoreka nabarmena dago. Biztanleriaren gehiengoak ulertzen du (% 90 inguru), eta askok hitz ere egiten dute (% 60 inguru). Baina irakurmena askoz ere mugatuagoa da: gutxi gorabehera % 20k bakarrik irakurtzen du ondo. Horrek erakusten du hizkuntza batez ere ahozko erabileran bizirik mantentzen dela.
- Frisieraz gain, eskualdean beste hizkuntza-aldaera batzuk ere erabiltzen dira, hala nola hiri-eremuetako aldaerak edo Bildts eta Stellingwarfs bezalako hizkerak. Gainera, beste hainbat hizkuntza erabiltzen dira. Beraz, hizkuntza-aniztasuna nonahi aurki daiteke eskualde hartan, bai gizartean, bai bertako eskoletan.
- Askok jakingo ez badute ere, frisiera hizkuntza-familia baten parte da. Alemanian hitz egiten diren beste bi aldaeretatik bereizteko, mendebaldeko frisiera izenez ere da ezaguna. Ipar frisiera Danimarkako mugatik gertu erabiltzen da, eta 10.000 hiztun inguru ditu; ekialdeko frisieraren aldaera bakarra, Saterfrisiera, gaur egun 2.000 hiztun inguruk erabiltzen dute.



# Alfabetatzea eta irakurketa sustatzeko modu praktikoak

**Hona hemen haurren irakurmena eta idazmena sustatzeko zenbait proposamen:**

## 1. Hizkuntza guztiak aitortu eta balioetsi

- Ikasgelan dauden hizkuntza guztiekiko jarrera irekia eta positiboa izan, eta haur bakoitzaren hizkuntza-identitatea balioan jarri.
  - Haurren hasierako gaitasunak aztertzean, garrantzitsua da haien hizkuntza guztietako trebetasunak kontuan hartzea, ez bakarrik eskola-hizkuntzan erakusten dituztenak. Horretarako, komeni da gurasoei galdetzea:
    - zer hizkuntza erabiltzen dituen haurrak etxean,
    - zein liburu, abesti edo istoriorekin harremana duen hizkuntza bakoitzean,
    - eta ea interesik erakusten duen letren, soinuen edo idazketaren inguruan, baita hizkuntza-jardueretan dituen lehentasunak ere.
  - Aukeratu liburu inklusiboak, ikasgelako haurren antzeko pertsonaiak dituztenak, beren burua istorioetan islaturik ikus dezaten. Horrek eragina izango du haien motibazioan eta autoestimuan.
  - Liburuak aukeratzean, bilatu testu elebidunak, erabili itzulpenak edo itzuli istorioa hurrekin batera.
  - Aukeratu haurrentzat interesgarriak eta esanguratsuak izan daitezkeen liburuak: haien interesak, lagunak, etxeko hizkuntzak eta identitateak islatzen dituzten liburuak, berezi sentiaraziko dituztenak.
- 

## 2. Irakurketa elkarreragilea eta inklusiboa sustatu

- Istorioa ardatz harturik, bultzatu elkarrizketa sakonak, galdera irekiak eginez, haurren ekarpenak errepikatuz eta haien ideiak zabalduz. Hizketa landua garrantzitsua da.
- Animatu haurrak komunikatzeko hizkuntza-baliabide guztiak erabiltzera: keinuak, ekintzak eta marrazkiak, etxeko hizkuntza barne. Haurren ekarpenak aukera gisa hartu, horiek landuz eta osatuz. Helburua ez da beren ekarpenak zuzenak diren edo ez zehaztea. Beren erantzunak zuzenean ezeztatu ordez, erabili istorioa bera erantzunak osatzeko.
- Onartu eta balioetsi parte-hartze mota guztiak, hitzezkoak zein ez-hitzezkoak, eta jarraitu haurren interesari elkarrizketa gidatzeko.
- Ulermena errazteko, erabili objektuak, irudiak eta bestelako baliabide bisual lagungarriak.

- Garrantzitsua da informazio bisuala eta ahozkoa aldi berean ematea. Istorioak behin baino gehiagotan irakur daitezke, eta behar izanez gero, etxeko hizkuntzan azaldu.
  - Taldekatu haurrak bikoteka, testuak elkarrekin irkur ditzaten. Horri esker, elkarri lagunduko diote.
- 

### **3. Hizkuntza-garapena indartu**

- Hizkuntza-eredu argia eskaini: ahoskera zaindu, errepikapenak baliatu, berridatzi eta kontuan hartu haurrek esaten dutena, hizketa landua erabiliz.
  - Balorazioa modu positibo eta leunean eman, esaldiak modu egokian berreraikiz edo, ahal denean, beste hizkuntza batera egokituz.
- 

### **4. Tresna digitalak modu egokian erabili**

- Aplikazioak erabiltzean, talde txikiak osatu (bi edo hiru haur), denek parte hartzeko aukera izan dezaten.
  - Ahal bada, hizkuntza bera partekatzen duten haurrak elkartu. Haurrek elkarri lagundu eta testua hobeto ulertu ahal izango dute.
  - Eztabaidatu testu digitalak irakurri aurretik, irakurri bitartean eta ondoren, paper-liburu batekin egingo zenukeen bezala.
  - Ipuin digitalak erabiltzen badira, ziurtatu multimedia-ezaugarriek ez dutela irakurketa oztopatzen, arreta mantentzeko zailtasunak sortzen, alegia. Haurrei aukera eman, behar izanez gero, soinuaren bolumena itzaltzeko edo aldatzeko.
  - Hitz zailen azalpenak mugatu, eta modu naturalean txertatu istorioan.
- 

### **5. Familiak eta zaintzaileak inplikatu**

- Gonbidatu familiak istorioak partekatzera eta hainbat hizkuntzatan irakurtzera.
  - Aitortu benetako bidelagun gisa: baloratu haien ekarpena eta esperientzia, eta eskatu haien haurrekin garatutako praktikak eta eskarmentua partekatzeko.
  - Balioetsi etxeko errealitatea eta baliabide gisa aitortu ikasgelan, liburu-iradokizunak eta bestelako proposamenak eskatuz.
-

# Haur Hezkuntzako langileen garapen profesionala



**Profesionalen formakuntzak eta etengabeko  
trebakuntzak nabarmen hobetu dezakete  
Haur Hezkuntzaren kalitatea.**

**Eskuliburu honen atal honetan,  
Haur Hezkuntzako irakasleentzat  
garrantzitsuak diren ikerketa-ildo  
nagusiak azalduko ditugu, hain zuzen ere,  
eleaniztasunari eta alfabetatzeari  
buruzko ikerketa-ildoak.**

# Eleaniztasuna

Eleaniztasunean trebatzeko formakuntza aukera paregabea da, gai garrantzitsuetan trebatzeko eta ezagutza berriak eskuratzeko. Besteak beste, profesionalek jakin dezakete nola ikasten eta erabiltzen dituzten hizkuntzak haur eleaniztunek, nola txertatu ditzaketen gelan hizkuntzak modu malgu eta eraginkorrean, eta nola funtzionatzen duten haur elebidun edo eleanitzen garunak. Ezagutza horretatik abiatuta, langileek beren ikasgeletan praktika eleanitz berritzaileak diseinatu eta martxan jar ditzakete. Praktika horiek, gainera, lankideekin edo arduradunekin partekatu, eztabaidatu eta ebaluatu ditzakete.

## Ikerketek erakusten dute halako prestakuntza-programetan parte hartzen duten irakasleek:

- esku-hartze eleanitzak martxan jartzen dituztela;
- eleaniztasunarekiko jarrera positiboagoak garatzen dituztela, eta horrek eragina duela gurasoen eta haurren jarreretan ere;
- eta haurrek hizkuntzen funtzionamendua hobeto ulertzen dutela.

Garapen profesionala ikastetxe-mailan ere bultzatu daiteke. Adibidez, ikastetxeek *Language Friendly School* sarean parte har dezakete, eta beren beharretara egokitutako hizkuntza-planak garatu.

**Informazio gehiago esteka honetan:**  
<https://languagefriendlyschool.org>

## Ohiturak aldatzeko erronka

Hala ere, metodo berriak benetan barneratzea ez da beti erraza, prestakuntza jaso ondoren ere. Horretarako, Haur Hezkuntzako langileek denbora, laguntza eta elkarlana behar dituzte, lan egiteko modu berriak pixkanaka ikasi eta praktikan txertatzeko.



# Prestakuntza alfabetatzearen inguruan

Alfabetatzeari buruzko prestakuntzek, oro har, eleaniztasunari buruzko prestakuntzen antzeko egitura dute, baina arreta berezia jartzen dute haur txikien irakurmen- eta idazmen-garapenean.

## Honako hauek dira alfabetatze goiztiarraren inguruko prestakuntzan funtsezkoak diren gaiak:

- haurrek hiztegia nola garatzen eta zabaltzen duten;
- hizkuntzaren soinuak eta haien funtzionamendua;
- letren eta idatzizko hitzen ezagutza, baita esaldiak nola eraikitzen diren ere;
- eta nola sustatu haurren interesa, parte-hartzea eta gozamena irakurmen eta idazmenean.

Prestakuntzak eragin positiboa du irakasleen jardunean, bereziki alfabetatze-jardueretan. Besteak beste, irakasleek ikasten dute hizkuntza nola landu, kalitatezko balorazioak nola eman eta haurrek beren kabuz eztabaidetan parte hartzeko aukerak nola sortu. Programarik eraginkorrenek, gainera, familien inplikazioa sustatzen dute. Horrek ahalbidetzen du alfabetatzea sustatzeko baliabideak eskolan zein etxean erabiltzea, eta, aldi berean, familien eta eskolaren arteko komunikazioa sendotzen du.

**Garrantzitsua da gogoratzea prestakuntzaren ondoriozko aldaketek denbora eskatzen duela. Profesionalek ezagutza berriak barneratu behar dituzte eta eguneroko jardunean txertatu; horregatik, prestakuntza-programek aldaketak pixkanaka gertatzeko baldintzak bermatu behar dituzte.**



# Iraunkorrek diren aldaketak martxan

## Haur Hezkuntzako profesionalentzako prestakuntza-programak diseinatzeko, kontuan hartzeko irizpideak:

- Epe luzeko laguntza eskaini. Prestakuntza ez da ekintza puntual bat izan behar. Denboran zehar luzatzen den garapen profesionala behar da, irakasleek ezagutza berriak barneratu eta ikuspegi berriak segurtasunez praktikan jartzeko aukera izan dezaten.
- Prestakuntza kolaboratiboa eta praktikoa sustatu. Garrantzitsua da irakasleek elkarrekin lan egitea, jarduera zehaztuta oinarritzea eta sortzen diren galdera edo zailtasunak batera aztertzea.
- Bideoak erabili hausnarketarako. Jarduerak grabatzea oso baliabide eraginkorra da ondorengo analisia egiteko. Grabazioak partekatzeak aukera ematen du besteek nola lan egiten duten ikusteko, estrategia eraginkorrak identifikatzeko eta ideia horiek norberaren testuingurura egokitzeko.
- Balorazio positiboa eman. Komenigarria da prestakuntzan bertan balorazio positiboa ematen ikasteko jarduerak egitea, laguntza eskaintzea eta elkarrekiko balorazioak modu eredugarrian lantzea.
- Familiak eta komunitatea inplikatu. Ikastetxearen beharren arabera, komeni da familiak eta komunitateko kideak prozesuan inplikatzeko. Horri esker, irakasleek guraso eta zaintzaileekin harreman zuzena izan dezakete, eta haien balioak, sinesmenak eta jarrerak hobeto ulertu, bereziki etxeko hizkuntzei, ikaskuntzari eta alfabetatzeari dagokienez.

## Besteengandik ikasiz

Praktika berriak garatzeko biderik eraginkorrenetako bat beste esperientzietatik ikastea da. Jarraian, inspirazio-iturri izan daitezkeen zenbait adibide:

### **Lês-mar-foar-wiken - Ahoz gorako irakurketa**

Frisian urtero antolatzen den kanpaina da, haur eskolako haurren artean ozeneko irakurketa sustatzeko. Urtero liburu berri bat sortzen da: protagonista Tomke da, eta ipuin, abesti eta poemak ditu bertan. Edukia frasieraz sortzen da, eta beste aldaera batzuetara ere egokitzen da. Liburua haur-eskola guztietara banatzen da, eta arreta berezia jartzen da irakurketa partekatuari.

### **The Fryske Berneboeke-ambassadeur - Enbaxadoreak**

Ekimen honen bidez, haur-liburuak eta irakurketa sustatzen dira Frisia osoan, eskoletan, liburutegietan eta ekitaldietan. Enbaxadoreak Herbehereetako ordezkariarekin elkarlanean jarduten du, eta arreta berezia jartzen du Frisiako egoera eleaniztunean. Europako beste herrialde batzuetan ere antzeko profesionalak daude.

# Baliabideak eta ariketak



# Haurren alfabetatze eleanitza sustatzeko liburu egokiak aukeratzea

Haurrentzako liburu egokiak aukeratzea ez da beti erraza, bereziki gaur egun eskaintza zabala eta erakargarria denean. Horregatik, kontrol-zerrenda hau sortu dugu, eta espero dugu baliagarria izatea Haur Hezkuntzako hezitzaileei, gurasoei eta zaintzaileei. Kontrol-zerrenda honen bidez, erabaki informatuak eta seguruak har ditzakete, eta haurren alfabetatze goiztiarra indartu.

Taldean irakurtzeko ipuin bat aukeratu behar duzunean edo oherako liburu bat hautatu behar duzunean, gomendio hauek kontuan har ditzakezu. Hau da, erabili kontrol-zerrenda erreferentzia azkar gisa erabaki bat hartu behar duzun bakoitzean.

Helburua da jakin-mina pizten duten, hizkuntza-gaitasunak sendotzen dituzten eta irakurketa-esperientzia atseginak eskaintzen dituzten liburuak aukeratzea.

Kontrol-zerrenda hau Read With MEE taldeak prestatu du, Euskal Herriko, Irlandako eta Frisiako Haur Hezkuntzako profesional, ikertzaile, guraso eta familia-kideekin elkarlanean.

**Kontrol-zerrenda honek liburuak hautatzerakoan kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak biltzen ditu, hiru arlotan antolatuta:**

- **Hizkuntza eta Literatura ezaugarriak**
- **Edukia**
- **Diseinua eta irisgarritasuna**

## 1. Hizkuntza eta Literatura Ezaugarriak

### **Hizkuntza zuzena eta jatorra**

- Liburuak hizkuntza (gramatikoki, ortografikoki...) zuzena izan behar dute. Dialekto edo aldaeraren bat erabiltzen bada, horrek zaindua izan behar du, ez itzulpen hutsa.
- Liburuak ikaskuntza esplizitua susta dezakete, oso baliagarria baita, besteak beste, fonetika, hizki/hotsak, hiztegia edo gizarte-kontzeptuak.

### **Kalitate literarioa**

- Liburuak ez dira testu soilak; literatura-lanak dira. Estilo zaindua izan behar dute, estilo zainduak umeen arreta bereganatzen dutelako: errimak eta errepikapenak irakurle hasiberriei laguntzen diete, eta ideia aberatsek eta ondo landutako istorioek irudimena pizten dute.

## **Itzulpenaren kalitatea eta benetakotasuna (liburu elebidun/eleanitzetan)**

- Itzulpenek zuzenak, egokiak eta jatorrak izan behar dute, ez hitzez hitz burututakoak. Bertako ahotsak tartekatzeak benetakotasuna zein hurbiltasuna islatzen ditu.
- Liburu elebidun edo eleanitzen kasuan, hizkuntza guztiek espazio bera izan behar dute. Hizkuntza bat gutxietsi egiten bada, umeek senti dezakete beren hizkuntzek balio gutxiago duela.

## **Hizkuntzaren egokitasuna**

- Garrantzitsua da hizkuntza-maila umeen adinera eta gaitasunera egokituta izatea: hitz erraz eta ezagunak hasiberrientzat, egitura konplexuagoak pixkanaka irakurle trebeentzat.
- Garrantzitsua da hiztegia eta gramatika irisgarria izatea: eguneroko hiztegi hurbil eta ezagunak umeak motibatzen ditu; hitz arraro edo ulergaitzak saihestu behar dira.
- Erreparatu testuen konplexutasunari eta irakurgarritasunari, hau da, irakurlearen araberako esaldien luzerari zein konplexutasunari, eta hiztegiari. Gainera, egituren errepikapenak lagungarriak dira irakurtzeko konfiantza eraikitzeko.
- Saiatu genero anitzetako liburuak aukeratzen: istorioak, poemak, abestiak, bertsoak... Genero ezberdinek hizkuntza askotariko erabilerak irakasten dituzte.

# 2. Edukia

## **Edukiaren egokitasuna adinerako**

- Edukiak umeen heldutasunari eta ulermen-mailari egokitua izan behar du: 6 urtekoentzat zirrargarria den zerbait 10 urtekoentzat aspergarria edo astunegia izan daiteke.
- Gaiak erakargarriak izan behar dute, haurrengandik hurbilak diren gaiak jorratzen dituztelarik. Familia, lagunak edo komunitatea islatzen dituzten liburuek irakurmena bizipen errealekin lotzen laguntzen dute.
- Istorioek haurren kulturak errespetuz landu eta islatu behar dituzte, estereotipoak saihestuz.

## **Identitatea eta benetakotasuna**

- Liburuek haurren identitatea (kultura, hizkuntzak...) errespetuz berretsi behar dute, kliseak baztertuz.
- Liburuek ez dute soilik istorio «exotikoak» landu behar; eguneroko gaiak, zientziak eta herritartasunari lotutako balioek ere garrantzi handia dute: etxeko gaiak, maskotak, lagunak, eguneroko bizipenak, laguntasuna, enpatia, justizia, errespetua, eleaniztasuna, inklusioa eta elkarbizitza.
- Gomendagarriak dira liburu dibertigarri edo umoretsuak, umeak irakurtzera bultzatzen baitituzte eta hori baita alfabetatzeko pausorik indartsuena.

## 3. Diseinua eta irisgarritasuna

### Ilustrazioak eta euskarri bisualak

- Irudiek argiak, erakargarriak eta kulturarekiko arduratsuak izan behar dute, ulermena laguntzeko. Ez dute apaingarri huts izan behar; istorioari zentzua eta emozioa gehitu behar diote. Adibidez, onomatopeiak, ikusizko pistak adibide paregabeak dira.

### Testuaren irakurgarritasuna

- Orri bakoitzean testu gutxi izateak irakurketa errazten du; testu luzeek ume txikien irakurmena atzeratu dezakete. Halaber, testu laburrak eta irudiak batera hobeto ulertzen dira.

### Tipografia eta maketazioa (liburu elebidun/eleoniztunetan)

- Hizkuntza guztiek toki eta trataera berdina izan behar dute; letra mota eta tamaina argiak izan behar dituzte. Azpimarratze bisualak (lodia, etzana, maiuskulak) esanahia laguntzeko erabili behar dira.

### Formatua eta iraunkortasuna

- Kontuan hartu formatu handiko liburuak erabiltzea Haur Hezkuntzako testuinguruetan. Tamaina handiagoa dutenez, partekatze bereziki egokiak dira. Haurrentzako liburu ezagun askok badute halako edizio handitua. Gainera, haurrek liburu beraren bertsio txikiagoa eraman dezakete etxera, gelan landutakoa jarraitzeko.

### Eskuragarritasuna eta prezioa

- Liburuek eskuragarri egon behar dute: tokian tokiko liburuak, prezio egokian, edo formatu digitalean/audioan.

### Testuinguru ezberdinetan erabiltzeko aukera

- Testuinguru ezberdinetan erabiliak izateko aukera bermatu behar dute: etxean, gelan, talde txikietan edo ahozko irakurketan erabiltzeko.

### Komunitatearekiko egokitasuna

- Tokiko hizkuntza-praktikekin, politikekin eta irakurketa-tradizioekin bat egin behar dute.
- Tokiko egileek sortutako edo elkar ekoiztutako liburuak merkeagoak eta egokiagoak izaten dira; gainera, gutxiengo hizkuntzetan idazle eta ilustratzaileen gaitasunak indartzen dituzte.

# Ba al zenekien?

## **Munduko hizkuntzen % 44 desagertzeko arriskuan dago.**

Horietako gehienak hizkuntza gutxiengoak dira, hizkuntza indigenak, hain zuzen. Hizkuntza bat osasuntsu dago komunitateko hurrek oraindik ikasten eta erabiltzen dutenean. Egoera hori aldatzen denean, hizkuntzak pixkanaka ahultzen hasten dira: lehenik arriskuan jartzen dira, eta, azkenean, desagertzeko arriskura irits daitezke.

## **Haurren irakurmena sustatzea ez da soilik letrak eta hitzak ikastea.**

Irakurtzeak jakin-mina pizten du, garuneko konexioak indartzen ditu eta bizitza osorako baliagarriak izango diren hizkuntza-gaitasunak garatzen ditu. Gainera, enpatia, irudimena eta konfiantza ere sustatzen ditu.

## **Etxeko hizkuntza sendoa duten hurrek bigarren hizkuntza hobeto ikasten dute, hizkuntza hori galdu edo baztertu dutenek baino.**

Horregatik, haurren etxeko hizkuntzan irakurtzea (eskolako hizkuntzarekin batera) funtsezkoa da: ikaskuntza indartzen du, konfiantza eta identitatea sendotzen ditu, eta haur eleaniztunei hizkuntza guztietan aurrera egiten laguntzen die.

## Handbook-INC: Alfabetatze eleaniztun inklusiboaren garapena Haur Hezkuntzan eta zaintza goiztiarrea

**Read With MEE** proiektuaren baitan sortutako eskuliburu honek haur txikien hizkuntza- eta alfabetatze-garapena laguntzea du helburu. Eskuliburuak ikerketa du oinarri, baina **hizkera argi** eta **ulerterrazean** idatzita dago. Izan ere, eskuliburu honen xede nagusia da irakurleak alfabetatzearen, hizkuntza-aniztasunaren eta eleaniztasunaren arloko azken ekarpenak modu errazean ulertu eta aplikatzea.

Eskuliburu hau bereziki egokia da **Haur Hezkuntzako hezitzaileentzat, gurasoentzat, zaintzaileentzat eta arlo honetan interesa duen edonorentzat**. Alfabetatze eleaniztuna sustatzeko jarraibide argiak eskaintzen ditu, haurrek irakurketaren bidez konfiantza garatu, jakin-mina piztu eta hizkuntza zein kultura desberdinekin konektatzeko gaitasuna indartzeko. Ikerketan oinarrituta, egunerokoan (gelan zein etxean) erabil daitezkeen tresnak eta estrategiak biltzen ditu.

### Proiektuari eta egileei buruz:

Read with MEE (Read with Multilingual Early Education) hiru urteko (2023–2026) Erasmus+ KA2 lankidetzaproiektua da, Europar Batasunak kofinantzatua. Proiektuaren helburua da haur eleaniztunen alfabetatze goiztiarra sustatzea, bereziki 2 eta 6 urte bitarteko haurrena eta hizkuntza-jatorri askotarikoak dituztenena (tokiko, eskualdeko, migrazio- edo errefuxiatu-komunitateetakoak, besteak beste). Proiektuak abiapuntutzat hartzen du haur eleaniztunek sarritan aukera desberdinak izaten dituztela hezkuntzan haur elebarkarrekin alderatuta. Horri aurre egiteko, proiektuak haurren hizkuntza guztiak balioan jartzen dituzten irakurketa-ikuspegiak sustatzen ditu. Ildo horretan, liburuen irakurketa interaktiboa eta erakargarria bultzatzen du testuinguru eleaniztunetan, hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera positiboak eta etxeko hizkuntzen erabilera indartuz. Read with MEE proiektuak Herbehereetako, Belgikako, Irlandako eta Espainiako erakundeak biltzen ditu, eta aditu eta profesionalekin elkarlanean aritzen da, bere proposamenak ikerketa eguneratuan oinarrituta egon daitezen. Helburua da Europan zehar alfabetatze goiztiar inklusibo eta eleanitza sustatzeko ezagutza, trebetasunak eta praktika eraginkorrak indartzea.

**Laura Nap**, irakasle eta ikertzailea (Leeuwarden, Herbehereak), NHL Stenden University of Applied Sciences unibertsitatean.

**Doaa Abdul Hussain**, irakasle eta ikertzailea (Leeuwarden, Herbehereak), NHL Stenden University of Applied Sciences unibertsitatean.

**Kathleen McTiernan**, psikologo tituluduna eta irakasle laguntzailea, Trinity College Dublin (Irlanda).

**Lorna Carson**, Hizkuntzalaritza Aplikatuko katedraduna, Trinity College Dublin (Irlanda).



**Read with MEE**

*irakurketa eleaniztun goiztiarra*